



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko martxoaren 13a

29. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Legea, Nafarroako 2011ko kontu orokorrei buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).
- Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Legea, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzen duena, udaletako zinegotzien boto-eskuordetzea ezartzeko. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).
- Foru Legea, Nafarroako ekintzaileei eta lan autonomoari laguntzeari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (9. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Kutzaren Gizarte Ekintzaren ondasun artistiko, kultural eta higiezin guztien inbentario bat egin dezan. Osoko Bilkurak onetsia (20. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar adinako diru-kopurua esleiri dezan Hezkuntza Departamentuaren aurrekontuan, Tuterako Fernando Remacha Kontserbatorioan musikako ikaskuntza profesionalen eskaintza mantendu eta zabaltzeko. Osoko Bilkurak onetsia (21. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak elkartasuna adierazten dio Cascanteko Santa Vicenta María ikastetxe publikoko hezkuntza-komunitateari, eta uste du ikastetxe horren segurtasunak ezin duela krisiaren menpe egon. Osoko Bilkurak onetsia (21. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak uste du behin kargu politikoekiko indarkeria- eta mehatxu-egoera desagerturik ez dagoela justifikatuta horien babes-neurri pertsonalak funts publikoen kontura mantentzea. Osoko Bilkurak bazter utzia (22. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentua premiatzen da deialdi bat onetsi dezan, ikuskari lanpostuak aldi baterako betetzeko izangaien zerrenda bat osatze aldera. Osoko Bilkurak bazter utzia (22. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Kontseilu Ekonomiko eta Soziala ken dezan. Osoko Bilkurak bazter utzia (22. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, Nafarroako 2011ko kontu orokorreari buruzkoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2013ko otsailaren 28an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako 2011ko Kontu Orokorreari buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2013ko martxoaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Legea, Nafarroako 2011ko kontu orokorreari buruzkoa

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 18. artikuluan xedatutakoari jarraituz, Diputazioari dagokio aurrekontu orokorrak prestatu eta kontuak formalizatzea, Parlamentuan aurkezteko, bertan eztabaidatu, zuzendu eta, hala erabakiz gero, onets daitezzen, hori guztia foru legeetan ezarritakoari jarraituz.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 123. artikulua

Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren esku uzten du Nafarroako kontu orokorren formulazioa. Horiek, behin Nafarroako Gobernuak onetsitakotan, Nafarroako Parlamentura behar dira igorri dagokion foru legearen proiektuaren bidez, aipatutako foru legearen 130. artikuluan ezarri bezala.

Nafarroako Gobernuak eginak ditu 2011ko ekitaldiko kontu orokorreari buruz adierazitako tramiteak, Comptos Ganberak emana du behar den irizpena, eta tramitatua dago Nafarroako 2011ko Kontu Orokorreari buruzko Foru Lege proiektua, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 154. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz. Bidezko da, beraz, foru lege hori onestea.

Artikulu bakarra. Onetsi egiten dira Nafarroako 2011ko kontu orokorrak, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuak formulatu eta Nafarroako Gobernuak onetsiak, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 130. artikuluan ezarritakoaren arabera. Kontuon edukia Nafarroako Atarian emanen da argitara.

Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2013ko otsailaren 28an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 20.2 artikulua eta Legebiltzarreko Erregelamenduen 153. artikulua ezarritakoarekin bat, aipatutako Foru Legea gehiengo osoz onetsia izan da, proiektua bere osotasunean bozkatua izan ondoren.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2013ko martxoaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENEA

Foru lege honen xedea da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzea, horren zenbait alderdi ukituz.

Apirilaren 6ko 7/2010 Foru Legeak Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatu zuen, barne merkaturako zerbitzuei buruzko 2006/123/EE Zuzentzura egokitzeko, eta jarduera pribatua eginiko eskuhartze administratiboan artean sartu zituen aurretiazko komunikazioa edo erantzukizuneko aitorpenaren aurkezpena eta jarduera hasi ondoko kontrolak egitea.

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko abenduaren 28ko 20/2011 Foru Legearen bidez, lehenago "Establezimenduentzako irekitze eta jardura lizentziak ematea" kargatzen zituen tasa aldatu zen, eta "alde aurreko baimenik edo kontrolik behar ez duten jardueren kasuan baldintzak betetzen direla egiaztatzeko jarduketak egitea" kargatzera pasa zen.

Merkataritza eta Zenbait Zerbitzu Liberalizatzeko Premiazko Neurriei buruzko maiatzaren 25eko 19/2012 Errege Lege-dekretuaren bidez, aurretiazko baimenaren ordez, erantzukizuneko aitorpenen edo aurretiazko komunikazioan oinarritutako osteko kontrol-araubidea ezarri zen.

Merkataritza sustatzeko neurri horiek Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean sartuta, bidezko da, lehenik, hirigintzako eta establezimenduak irekitzeko lizentziak ematea kargatzen duten tasen zergapeko egitatea aldatzea, kontrolerako jardura administratiboak ere har ditzan, lizentziaren ordez erantzukizuneko aitorpena edo aurretiazko komunikazioa eskatzen direnean.

Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ere ukitzen dute liberalizazio-neurri horiek, eta 2/1995 Foru Legeko manua zergapeko egitateari, subjektu pasiboari eta zergaren kudeaketari buruzkoak aldatzen dituzte.

Zergapeko egitateari gehitu zaio erantzukizuneko aitorpena edo aurretiazko komunikazioa aurkeztea eskatzen duen edozein eraikuntza, instalazio edo obra egitea.

Subjektu pasibo zergadunak eraikuntza egiten ez duenerako, zergadunaren ordezko berri gisa agertzen dira erantzukizuneko aitorpenak edo aurretiazko komunikazioak aurkezten dituztenak.

Kudeaketa fasean behin-behineko likidazioa egitea aurreikusten da, baita erantzukizuneko aitorpena edo aurretiazko komunikazioa aurkezten denean ere.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduen Testu Bateginaren 152. eta 153. artikuluetan ezarritakoari jarraikiz, foru lege honek gehiengo absolutua behar du onetsi ahal izateko.

Artikulu bakarra. 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen manu hauek honela geratuko dira idatzita:

Bat. 79. artikulua.

"Ordenantza partikularrean bertan hala zehazten denetan, eta ezertan galarazi gabe legeak zenbait tributu kudeatzeko ezartzen dituen erregistro administratiboak, toki entitateek zergadunen erroldak prestatuko dituzte, kontuan izanik, horretarako, interesdunen aitorpenak, toki entitateek beraiek dakizkiten datuak, bai eta ikuskaritza administratiboaren bidez lortutakoak. Zergadunen errolda, behin horrela prestatuta, erregistro iraunkor eta publikotzat hartuko da, eta toki entitateek erabakitzen duten prozeduraren bidez eramanen da, are prozedura mekanikoaren bidez"

Bi. 86.3. artikulua.

“3. Jakinarazpen gabeko zorrak dira jakinarazpen indibidualik behar ez dutenak, subjektu pasiboek jadanik ezagunak dituzten zergadun-erregistro eta -erroldeetatik datozelako.

Konparaziora, aldizka errezibo bidez kobratu beharreko tributuetan, behin kasuan kasuko erregistro, errolda, padroi edo matrikulan alta eman eta likidazioa jakinarazi denean, zilegi izanen da hurrengo likidazioak modu kolektiboan jakinaraztea, ediktu bidez berri emanaz, baldin eta likidazio horiek lehengoan berdin-berdinak badira edo izan diren aldaketak orokorrak badira.”

Hiru. 100.5.h) artikulua.

“Zoruari eta hirigintza antolamenduari buruzko legeek eskatzen dituzten hirigintza lizentziak ematea, edo kontrolerako jarduera administratiboak egitea, lizentzia eskatu ordeztuz erantzukizuneko aitortpena edo aurretiazko komunikazioa aurkeztea eskatzen denean.”

Lau. 100.5.i) artikulua.

“Establezimenduentzako irekitze lizentziak ematea, edo kontrolerako jarduera administratiboak egitea, lizentzia eskatu ordeztuz erantzukizuneko aitortpena edo aurretiazko komunikazioa aurkeztea eskatzen denean.”

Bost. 106. artikulua.

“106. artikulua.

Jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik edo zerbitzu berriak osorik edo partez finantzatzeko diren tasak ezartzeko erabakiak hartu beharko dira txosten tekniko-ekonomikoak oinarri direla, zeinetan agerian jarriko baita, kasuan-kasuan, erabilera edo aprobetxamendu horren merkatuko balioa edo zerbitzuen kostuei aurreikus dakiekeen estaltze-maila. Txosten hori kasuko erabakia hartzeko espedientean jasoko da.

Aurreko lerrokadan aipatzen den txosten tekniko-ekonomikoa ez da beharko, baldin eta hartu beharrekoak errealizazio edo eguneratze orokorren ondoriozko erabaki arrazoituak badira, eta, halaber, ez da halako txostenik beharko tasen zenbatekoa murrizten denean ere, salbu eta handia denean dagokion zerbitzuaren kostuaren murrizketa.

Aurreko lerrokadan ezarritakoari dagokionez, joko da murrizketa handia dela, baldin eta aurrekusten bada zerbitzu-kostuaren murrizketa handiago izanen dela tasa ezartzeko edo aldaketa handia egiteko erabakiaren aurretiko txosten

tekniko-ekonomikoan aurreikusitako zerbitzu-kostuaren ehuneko 15 baino.

Txosten tekniko-ekonomikorik eza justifikatzeko, gastua kudeatzen duen organoak jasota utzi beharko du, aldatze-erabakia hartzeko espedientean, adierazpen bat, esanen duena murrizketa ez dela handia.”

Sei. 134.4. artikulua.

“Nafarroako Gobernuak udalez gaindiko balorazio partzialeko ponentzia bat onetsiko du, azpiegitura horiei dagokien lurzorua baloratzeko, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko azaroaren 21eko 12/2006 Foru Legeko 34. artikuluari jarraikiz.

Ponentzia horrek ezarriko ditu “itzaleko bidesaria” deiturikoak ukitzen dituen Nafarroako autobideei balio bat esleitzeko metodo eta parametro teknikoak, eta zehaztuko ditu ukitutako udalek aipatu azpiegituren emakida-hartzaile diren enpresei kobratu beharreko zenbatekoak eta horretarako irizpideak.”

Zazpi. 136.d) artikulua.

“d) Eliza katolikoarenak eta legez onartutako elkarte ez-katolikoarenak, baldin eta elkarte horiekin badago Espainiako Konstituzioaren 16. artikulua aipagai dituen lankidetzak-akordioetakoren bat, eta, betiere, kulturako badira.”

Zortzi. 143.2. artikulua.

“2. Udalek, 1. idatz-zatian agertzen diren datuetan oinarrituta, urtero, martxoaren 31 baino lehen, behar diren likidazioak egin eta, tributu-zorrak zein diren zehaztuta, kobrantza-agiriak igorriko dituzte, zerga tasa aplikatu zaion ondasunaren katastrobalioa espresuki adieraziz; eta, 138. artikuluan ezarritakoaren arabera beharpenik aplikatu behar bada zerga oinarrian, zirkunstantzia hori aipatu egingen da, bai eta beharpen horiek noiz arte aplikatuko diren ere. Kobrantza-agirian adierazita egonen da, halaber, tributu-zorra non, zer epetan eta zer modutan ordaindu behar den, bai eta aurkartzeko bideak zeintzuk diren ere.

86.3 artikuluan xedatutakoarekin bat, katastroan alta eman ondorengo likidazioek ez dute jakinarazpen indibidualik beharko, eta kolektiboki jakinarazten ahalko dira horren berri emanen duten ediktuen bidez, baldin eta aurreko zergaldikoen berdin-berdinak badira edo izan diren aldaketak orokorrak badira. Ediktuetan adierazita egon beharko du zein egunetan amaitzen den aldizkako erreziboa ordaintzeko epea eta zer errekurso jar daitezkeen likidazioen aurka.”

Bederatzi. 143.3. artikulua.

“3. Kasuren batean frogatzen bada, kobrantza-agiriak igorri ondoren, subjektu pasiboa ez dela katastroan titular gisa agertzen zena zergaren sor-tzapeneko egunean, eginiko likidazioak behin-behinekotzat hartuko dira, eta egin behar ez ziren diru-sarrerak itzuli egingen dira.”

Hamar. 143.4. artikulua.

“4. Subjektu pasiboek ahalmena izanen dute egin zaien likidazioa aurkaratzeko, eta, horretarako, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 333. artikuluan zehazten diren bideak erabiltzen ahalko dute aurkaratze bideetako edozein.

Zerga-oinarriari dagokionez, eta ez bada ondasunaren balioa errekurritu, zeina Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko Foru Legearen 21. artikuluan xedatutakoaren arabera adierazi edo jakinaraziko baitzen, likidazioaren aurkako errekurtsioan ere aurkaratzen ahalko da katastro-balioa, baina soilik aldatetaren bat izan bada aurre-aurreko zergaldiko lurralde-kontribuzioaren zerga-oinarri gisa hartu zen katastro-balioarekin alderatuta, eta balio-aldaketa hori ez bada izan aldaketa orokorren ondorio.

Idatz-zati honetan aurreikusitako errekurtsoren bat jartzeak ez du aurkaratutako egintzaren exekuzioa etenen.”

Hamaika. 143.7. artikulua.

“7. Auzirik baldin badago kargapean jarritako ondasunaren edo eskubidearen titularraren inguruan edo haren titulartasunaren inguruan, Tributu Administrazioak katastroetan agertzen direnak jo ahalko ditu halakotzat, eta behin-behineko likidazioak igorriko dizkie; likidaziook aldatu edo behin betiko bihurtuko dira epai judizial irmoa ematen denean edo auzia beste edozein moduren bidez amaitutzat ematen denean.”

Hamabi. 167. artikulua.

“167. artikulua.

Eraikuntza, instalazio eta obraren gaineko zerga zeharkako zerga bat da, eta haren zergapeko egitate udal mugapeko edozein eraikuntza, instalazio edo obra egiteak sorrarazten du, horretarako obra- edo hirigintza-lizentzia edukitzea nahitaezko baldintza bada, lizentzia hori lortua izanik nahiz izan gabe, edo erantzukizuneko aitortpena edo aurretiazko komunikazioa aurkeztea nahitaezko baldintza bada, betiere baldin lizentzia-ematea, hura emateko txostena –Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 39.

artikuluan xedatutakoaren arabera–, edo kontrol-jarduera badagokio zerga ezartzen duen udalari.”

Hamahiru. 169. artikulua.

“169. artikulua.

1. Zerga honen subjektu pasibo dira, zergadun gisa, Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 25. artikuluan aipatzen diren pertsona fisikoak, pertsona juridikoak edo entitateak, eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren jabe direnak, haiek kokatuta dauden higiezinaren jabe izanik nahiz izan gabe.

Aurreko lerrokadako ondorioetarako, eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren jabetzat joko da haiek egiteak dakartzan gastuak edo kostua bere gain hartzen dituenak.

2. Eraikuntza, instalazioa edo obra subjektu pasibo zergadunak egiten ez duenean, zergadunaren ordeko subjektu pasibotzat joko dira kasuko lizentziak eskatzen, kasuko erantzukizuneko aitortpenak edo aurretiazko komunikazioak aurkezten, edo eraikuntzak, instalazioak edo obrak egiten dituztenak.

Ordezkoak zergadunari eskatzen ahalko dio ordaindutako tributu-kuotaren zenbatekoa.”

Hamalau. 170.1. artikulua.

“Zerga-oinarria eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren kostu erreala izanen da. Ondorio horietarako, ulertuko da kostu erreala dela haren exekuzio materialaren kostua, kasuko proiektuan agertzen diren osagai guztiak barne, baldin eta lizentziaren edo erantzukizuneko aitortpenaren xede den eraikuntza, instalazio edo obrarekiko berezitasunik edo berezko nortasunik ez badute. Ondokoak ez dira zerga-oinarriaren parte izanen: balio erantsiaren gaineko zerga; araubide berezietako gisa bereko gainontzeko zergak; eraikuntzari, instalazioari edo obrari lotutako toki izaera publikoko gainontzeko ondare-prestazioak, prezio publikoak eta tasak; profesionalen ordainsariak; kontratistaren enpresa-irabaziak; eta aipatu exekuzio materialaren kostuaz bestelako edozein kontzeptu.”

Hamabost. 171.1. artikulua.

“1. Aginduzko lizentzia ematen denean, erantzukizuneko aitortpena edo aurretiazko komunikazioa aurkezten denean, edo, lizentzia eskatu, eman edo ukatu edota erantzukizuneko aitortpena edo aurretiazko komunikazioa aurkeztu baino lehen, eraikuntza, instalazioa edo obra hasi bada, konturako behin-behineko likidazio bat egingen da, eta honela zehaztuko da zerga-oinarria:

a) Interesdunek aurkeztutako aurrekontua aintzat hartuta, betiere dagokion elkargo ofizialak ikus-onetsia, aginduzko betebeharra denean hori.

b) Aurrekonturik ez dagoen kasuetan eta zerga ordenantzak hala aurreikusten duenean, hartan ezartzen diren indize edo moduluak aintzat hartuz”

Hamasei. 187. artikulua.

“187. artikuluko c) letra kendu da.”

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, legean berean aurreikusitako ondorioekin.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Legea, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzen duena, udaletako zinegotzien boto-eskuordetzea ezartzeko.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2013ko otsailaren 28an egindako Osoko Bilkuran, onetsi zuen Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzeko Foru Legea, udaletako zinegotzien eta kontzejuetako kideen boto-eskuordetzea ezartzeko.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 20.2 artikulua eta Legebiltzarreko Erregelamenduen 153. artikulua ezarritakoarekin bat, aipatutako Foru Legea gehiengo osoz onetsia izan da, proiektua bere osotasunean bozkatua izan ondoren.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2013ko martxoaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Legea, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzen duena, udaletako zinegotzien boto-eskuordetzea ezartzeko

ZIOEN AZALPENA

Erakundeen funtzionamenduak, batzuetan, behartzen du beren erregelamenduetan aldaketak egin edo bultzatzera, behar berrietara eta gizartean ordezkari publikoei begira sortzen diren aldaketetara egokitzeko. Boto-eskuordetzea, bai amatasuna dela kausa, bai ospitaleratzea nahiz gaixotasun larria dela kausa, jaso dago dagoeneko zenbait legebiltzarretan, esate baterako Diputatu Kongresuan edo Nafarroako Parlamentuan, eta Espainiako zenbait udaletan ere bai; denek ere beren erregelamenduen bidez arautu dituzte alderdiok.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen aldaketa honekin, Nafarroako Parlamentuak legezko bidea ematen die Nafarroako Foru Komunitateko udalei, modu horretan jardun ahal izan dezaten.

Artikulu bakarra. Idatz-zati berri bat gehituko zaio Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 86. artikuluari. Hona edukia:

“4. Udaleko osoko bilkurak onetsi ahalko du jaso dadila bere erregelamendu organikoan zinegotziek zer kasutan eskuordetzen ahalko duten botoa, honakoen arabera:

a) Amatasuna dela-eta bilkuretara joaterik ez duen zinegotziak bere botoa beste zinegotzi baten esku utzi ahalko du, erditzearen ondorengo sei asteetan.

Aitatasunagatiko baja, edoskitzea edo haurdunaldia ez dira kontuan hartuko boto-eskuordetzea baimentzeko, medikuak behar bezala justifikatutako haurdunaldi arriskutsuaren kasuan izan ezik.

b) Behar bezala egiaztatutako ospitaleratze baten edo gaixotasun larri baten ondorioz bilkuretara joaterik ez duten zinegotziek beren botoa beste zinegotzi baten esku utzi ahalko dute.

c) Baja medikoa egiaztatzeko, ziurtagiri medikoa aurkeztuko da, sinatua eta elkargokide-zenbakia adierazita, eta, ziurtagiri horretan, gaixotasunaren larritasuna zehaztuko da.

d) Boto-eskuordetzea erabili ahalko da udaleko osoko bilkuretan bakarrik; ez, ordea, batzordeetan, lan bileretan edo bozketa eskatzen duen beste ezein egoeratan.

e) Zinegotzi batek ezinen du eskuordeturiko boto bat baino gehiago izan.

f) Eskuordetutako botoen kopurua ez da izanen, inola ere, udalbatza osatzen duten zinegotzi-en erdia baino handiagoa.

g) Boto-eskuordetzearen epea ezin izanen da, inola ere, urtebete baino gehiagokoa izan?

Foru Legea, Nafarroako ekintzaileei eta lan autonomoari laguntzeari buruzkoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2013ko otsailaren 28an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako ekintzaileei eta lan autonomoari laguntzeari buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2013ko martxoaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Legea, Nafarroan ekintzaileei eta lan autonomoari laguntza ematekoa

ZIOEN AZALPENA

Egungo krisi egoeran, ekintzailtza eta lan autonomoa enplegu-sormenerako alternatiba gisa eskaintzen diren tresnak bilakatu dira. Auto-enplegua egiazki erantzun baten gisara egituratu da egoera zail honetan, tamalez soilik doikuntza-neurriak aplikatzen ari baitira, nahiz eta demostraturik dagoen doikuntza horiek berez gurpil gaiztoa dakartela: enplegu-suntsipen handiagoa, kontsumitzeko ahalmen eza eta, horrenbestez, atzeraldi handiagoa.

Nafarroako ekintzaileei eta lan autonomoari laguntzeko foru lege honekin, bilatzen dugu Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak benetako konpromiso eraginkorra hartzea ekintzaile hauekin eta langile hauekin, zeren eta, beren kabuz, eta batzuetan behar den laguntza eta orientabidea eduki gabe ere, krisiari aurre egin nahi baitiote, auto-enpleguaren eta beren enpresa eratzearen aldeko apustua eginez.

Foru lege honek, horrenbestez, ekintzailtzarekin eta lan autonomoarekin lotutako kontzeptu horiek zedarritu nahi ditu aurrena; ondoren, langile horiek egiteko prest dauden apustu pertsonalak errazteko neurri eta tresnak taxutu nahi ditu.

Garrantzitsua da foru lege honen xedearen aipamena egitea: "garatzea eta bultzatzea, Nafarroako Foru Komunitateak bereganatutako eskumenen esparruan, enpresa berrien sorrera, enpresa-jarduera eta enplegua sortzeko jarduera, horretarako laguntza emanez ekintzaileei, langile autonomoei eta mikroenpresei, politika publikoen bidez, zeinak bideratuak egonen baitira bete-betean eta modu eraginkorrean bultzatzea ekintzaile-

tza eta lan autonomoa, Nafarroako ehun produktibo enpresariala garatzeko tresna gisa".

Proposamenean, gainera, ekintzailtza eta lan autonomoaren bultzapenak oinarritzat izanen dituen printzipio gidariak jasotzen dira, eta printzipio horien artean, hain zuzen ere, lehiakortasunak, berrikuntzak, teknologiak eta hazkunde ekonomikoak toki nabarmena hartzen dute, bestelako elementu batzuekin batera: lan autonomoaren kalitatea hobetzea; lan autonomoaren egonkortasuna; profesionalizatzea; lana eta familia uztartzea; laneko segurtasuna eta osasuna; neurketa eta arbitraje mekanismoen sustapena; eta prozedura administratiboen koordinazioa eta sinplifikazioa, aukeren berdintasuna, lankidetzeta eta elkartegintza sustatzea, besteak beste.

Azken batez, kontua da ibilbide-orri oso bat zedarritzea, Nafarroako Gobernuak esparru ekonomiko gero eta garrantzitsuago hau indartze aldera egin beharreko lana orientatzeko.

Egia da kontua ez dela hutsetik hastea, baizik eta gaur egun erabiltzen diren tresna batzuk antolatzea eta beharrezkotzat jotzen diren beste batzuk erabiltzen hastea, jakinda errealtateak eragozten digula nahi genituzkeen baliabide ekonomikoak edukitzea; eta, horrenbestez, alde batera utzi gabe kontu publikoei dagokienez zein inguruabar dauzkagun.

Azken batez, enplegu autonomoaren sustapenean azpimarra jartzen duen foru lege bati buruz ari gara, eta horretarako, zenbait arlotan tresna eta neurriak bideratzeko ahaleginak egiten ditu: babes teknikoa, aholkularitza, sinplifikazio administratiboa, ekintzailetasuna sustatzea, unibertsiteekin eta lanbide heziketako ikastetxeekin lankidetzan jardutea. Bestalde, foru lege proposamenak zenbait pizgarri ezartzen ditu eta laguntza batzuk sistematizatzen ditu, beren kabuz nahiz beste batzuekin batera ekintzaile izan eta beren enpresa-proiektua bultzatu nahi duten langileei aukera gehiago eta aukera hobeak eskaintze aldera.

Foru lege honek, halaber, ekonomia sozialaren aldeko apustua egin nahi du, zeren eta jotzen baitu hori tresna erabilgarria dela enpresen ehundura –krisia baino lehen eta krisia bitartean hain emaitza onak ematen ari dena– dinamizatze.

Halaber, finantziazio-tresna publiko zein mistoak (publiko-pribatuak) ezartzen dituen foru legea da, tresna finantzarioetan lehentasuna krisian dauden enpresetako langileei ematen diena, partaide-tzak erosi ahal ditzaten enpresa hori kooperatiba, lan-sozietate nahiz baliagarri eta zuzenbidean onargarri den beste edozein sozietate-modu bihurtzeko, betiere aurrena proiektuen bideragarritasuna aztertuta.

Halaber, inbertsio sozialeko funtsak ageri dira, lan autonomoa garatzeko eta ekintzaileari laguntzeko funtsak; maileguetara daude bideratuta, onuradun eta urte bakoitzeko gehieneko batekin, proiektuaren ehuneko 80 hain zuzen, eta interes txikiekin. Balioa ematen zaio mikrofinantziario eta mikrokreditu sozialen sistema bat taxutzeko aukerari.

Zenbait figura ere sortzen da: lan autonomoan eta ekintzaileei laguntza ematen aditua den bitartekari finantzarioarena, kasu, zeina aholku-tresna bat baita finantziarioa lortzeko prozesuan edo prozesuetan. Halaber, inbertitzaile pribatu soziala eta inbertsio soziala babesteko entitateak ere sortzen dira; horiek modu aktiboan lagunduko diete autonomoei, edota ekintzaileen sozietateen kapital sozialean hartuko dute parte jarduera ekonomikoaren etapa batean.

Eskumenak ematen zaizkio Nafarroako Enplegu Zerbitzuari, funtsezko erakunde bat dela jotzen baita, haren bitartez abian jartzeko foru legearen edukitik eratoritzen diren politikak, honako funtzio hauekin: azterlanak egitea, merkatuari buruzko prospekzioak egitea, bitarteko teknikoak eskueran edukitzea –berekiak nahiz hirugarrenekin behar diren hitzarmenak eginez lortutakoak– eta abar.

Administrazioak arlo honetan izan duen funtzionamenduari buruzko jarraipena egiteko, funtsezkoa da Nafarroako Lan Autonomoaren Kontseiluaren lankidetzak. Halaber, berariaz aipatzen da Ekintzailetzari buruzko Plan Estrategikoaren sorrera.

Azken batez, arestian esan den bezala, foru lege honek xehetasunak ematen ditu ibilbide-orri bat sortzeari buruz, hain zuzen ere ekintzaile eta lan autonomoa sustatze aldera, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren konpromiso tinkoaren bitartez.

I. KAPITULUA Xedapen orokorrak

1. artikulua. Aplikazio-eremua.

1. Foru lege hau ekintzaileei aplikatuko zaie, eta halakotzat hartuko da pertsona fisiko oro izapi-

deak egiten ari dena jarduera ekonomiko bat garatu ahal izateko langile autonomo gisa, kooperatibista gisa, edota lan sozietate baten bitartez nahiz zuzenbidean onartutako edozein merkataritza-formularen bitartez, bizitokia eta helbide fiskala Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean dituen, eta baldin eta mikroenpresaren parametroak gainditzan ez dituen.

2. Era berean, foru lege honen aplikazioa zabaldu eta hartuko ditu entitate ekintzaileetako bazkide ez-inbertitzaileak, hau da, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Testu Bateginaren berrogeita laugarren xedapen gehigarriak entitate ekintzaile gisa definitzen dituen horietakoak, xedapen horretan arautzen baitira ekintzailetzat jotzen diren pertsonen edo entitateen eta entitate horietan inbertitzen dutenen zerga araubidea.

2. artikulua. Definizioak.

Foru lege honek agintzen duenerako, honako definizio hauek hartuko dira aintzat:

a) Langile autonomoa: pertsona fisikoa, egoitza eta helbide fiskala Nafarroako Foru Komunitatean dituen, eta ohiko duena jarduera ekonomiko edo profesional bat garatzea, modu pertsonalean, zuzenean, bere kontura eta beste inoren zuzendaritza- eta antolamendu-esparrutik kanpo, irabazi-asmoarekin, besteren konturako langileei lana eman nahiz ez eman, Lan Autonomoaren Estatutuari buruzko uztailaren 11ko 20/2007 Legeko 1. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Halaber, foru lege hau aplikatu beharko zaie Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean ohiko moduan egiten diren lanei; hain zuzen ere, aurreko lerrokadan definitutako pertsonen ahaideak izanik Langileen Estatutuaren menpeko langile ez diren pertsonen eginiko lanei.

b) Mikroenpresa: enpresa bat zein, Europar Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko 2003/361/EB Gomendioaren eranskinean ezarritako baldintzak betez, hamar pertsona baino gutxiagori ematen baitie lana, eta urteko negozio-bolumena edota urteko balantze orokorra bi milioi euro baino gutxiagokoa baitu.

3. artikulua. Kanpo utzitako kasuak.

Joko da foru lege honen aplikazio esparrutik kanpo berariaz uzten direla 1. artikulua baldintzak betetzen ez dituzten zerbitzuen prestazioak; honakoak bereziki:

a) Lan-harremanak; dela lan arloko legediaren menpekoak, Langileen Estatutuan ezarritakoaren arabera, dela funtzionario-arloko legediaren men-

pekoak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan ezarritakoaren arabera.

b) Sozietate baten forma juridikoa daukaten enpresetan administrazio-organoetako kontseilari edo kide karguan jardute hutsera erabat mugatuta dagoen jarduera, Langileen Estatutuan ezarritakoaren arabera.

c) Izaera berezia duten lan harremanak, Langileen Estatutuak eta xedapen osagarriek aipatzen dituztenak.

d) Inolaz ere ezin izanen dira ekintzailatzat hartu Sozietateen gaineko Zergari buruzko Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 5eko 4/2004 Legegintzako Errege Dekretuko VII. Tituluko VI. kapituluaren araututako ondare-sozietateen araubidea aplikatzen zaien sozietateak.

e) Era berean, pertsona fisiko edo juridiko bat ez da ekintzailatzat hartuko baldin eta bere bazkideetako bat, Espainian nahiz atzerrian, ezgaituta badago konkurtso-prozedura baten ondorioz, prozesatua badago, edo ahozko epaiketa irekitzeko auto bat emana badago, Prozedura Kriminalaren Legeko IV. liburuko III. tituluko prozedura dela-eta, edota aurrekari penalak baditu delitu hauekoren batengatik: faltsutze-delituak, Ogasun Publikoaren eta Gizarte Segurantzaren kontra, desleialtasuna agirien zaintzan, sekretuak urratzea, kapitalak zurtzea, errezibitza eta antzeko beste jokabide batzuk, ondasun publikoak bidegabe eralgitzea, edo jabetzaren aurkako delituak. Ez da ekintzailatzat hartuko, halaber, baldin eta ezgaituta edo etenik badago, penalki edo administratiboki, kargu publikoetan, edo finantza-entitateen administrazio edo zuzendaritzako karguetan.

4. artikulua. Ekintzailearen eta langile autonomoaren xede soziala.

Ekintzaileak eta langile autonomoak edozein jarduera ekonomiko eduki ahalko dute xede sozialtzat edo jarduntzat.

5. artikulua. Xedea.

1. Foru lege honen xedea da garatzea eta bultzatzea, Nafarroako Foru Komunitateak bereganatutako eskumenen esparruan, enpresa berrien sorrera, eta enpresa-jarduera eta enplegua sortzeko jarduera, horretarako laguntza emanez ekintzaileei, langile autonomoei eta mikroenpresei, politika publikoen bidez, zeinak bideratuak egonen baitira bultzatzera bete-betean eta modu eraginkorrean ekintzailatza eta lan autonomoa, Nafarroako ehun produktibo enpresariala garatzeko tresna gisa eta beren kabuz jarduten duten profesionalen babes-tresna gisa. Halaber, xede du lan autonomoa lagundu eta sustatzea, Langile Autonomoa-

ren Estatutuari buruzko uztailaren 11ko 20/2007 Legeko V. tituluan eta seigarren xedapen gehigarrian ezarritako guztian.

2. Halaber, ekintzailatzaren sustapena Moderna Planean babestuta dago. Moderna Plana Lurraldeko plan estrategiko bat da, ikuspegia ematen duena etorkizuneko Nafarroari buruz, 2030eko horizontearekin. Plan horretan, ekintzailatza agertzen da gure erkidegoaren garapenerako sustraietako baten gisara.

6. artikulua. Printzipio gidariak.

Ekintzailatza eta lan autonomoaren bultzapean bereziki honako printzipio gidariak izanen dira nagusi:

a) Hobetzea lurraldeko enpresa-ehundura endogenoa, eta lehiakortasunean, berrikuntzan, teknologian eta hazkunde ekonomikoan oinarritutako hazkunde-eredu bat, betiere garapen iraungarriko esparruaren barruan.

b) Lan autonomoaren kalitatea babestea, haren egonkortasuna, profesionaltasuna, familia-bizitzarekiko bateragarritasuna eta jarduera ekonomikoaren errendimendu altua sustatze aldera.

c) Lan autonomoaren segurtasuna eta osasuna hobetzea eta lan arriskuei aurrea hartzeko jarduerak koordinatzea.

d) Elkartegintza sustatzea eta lan autonomoa ordezkatzeko erakundearen parte-hartze soziala bultzatzea.

e) Gatazkei konponbide autonomoa emateko tresnak sustatzea, bitartekaritza eta arbitraje tresnak ezarriz.

f) Lan autonomoaren babes soziala hobetzea, Nafarroako Foru Komunitatearen eskumenen esparruan.

g) Lan autonomoaren arloko politika publikoen gobernua, kalitatea eta ebaluazioa, eta saihestea bere jarduera ekonomiko edo profesionala administrazio publikoekin modu autonomoan betetzen duenaren harremanean beharrezkoak ez diren zama administratiboak.

h) Generoko ikuspegia foru lege honen esparruan garatzen diren ekintzak diseinatu, planifikatu, bete eta ebaluatzerakoan, emakumeen eta gizonen arteko aukeren berdintasuna bermatuz.

i) Enpresen sorrerarekin zerikusia duten administrazio-prozedurak koordinatzea eta sinplifikatzea; bereziki, jarduera lizentziak lortzearekin eta izapide eta eskakizun fiskalekin zerikusia dutenak.

j) Dauden finantzaketa-aukera guztiak indartzea, ekintzaileentzako eta lan autonomorako finantziario eredu berriak eta dagozkion pizgarri fiskalak erraztuz.

k) Mikrofinantziario sistemak ezartzea ekintzaileentzat eta lan autonomorako.

l) Arrisku kapitalaren, hazi kapitalaren, mailegu parte-hartzaileen eta abal eta bermeen sarbideen sektorea dinamizatzea.

m) Lankidetzaren ekonomiko enpresarietako formulatutako pizgarri ekonomiko eta fiskalak sustatzea, bai autonomoentzat, bai ekintzaileentzat.

n) Lan autonomorako eta ekintzailetzarako prestakuntzako politika berriak garatzea.

ñ) I+G+B delakoaren arloan, lan autonomorako eta ekintzailetzarako berriak politikak bat garatzea, eta informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrietarako sarbidea eta kudeaketarako tresna aurreratuak erraztea.

o) Ekintzailetzarekin lotutako balioak sustatzea hezkuntzaren etapa desberdinetan, eta gizarteari, oro har, jakinaraztea ekintzailetzak nolako garrantzia duen.

p) Jarduera berri baten hasierak dauzkan arrikuak gaitzea.

q) Proiektu berrien bideragarritasuna eta lehiakortasuna erraztea.

r) Sareetako parte-hartzerako pizgarriak ematea.

s) Ekintzailetzarekin lotutako informazioa estandarizatu eta transmititzea herritarrei eta ukitutako enteen artean.

II. KAPITULUA

Ekintzailetza sustatzeko politika aktiboak

7. artikulua. Enplegu autonomoa sustatzeko eta ekintzaileari laguntzeko politika aktiboak.

1. Nafarroako Gobernuak politika aktiboen multzo integral eta koherente bat diseinatu eta abian jarriko du. Politika horien xedea izanen da esparru horretan lanbide-jarduera eta enplegua sortu, dibertsifikatu, finkatu eta modernizatzea. Politika horiek, nolana ere, plan, programa eta beharrezko neurri egokiak arautu, finantzatu eta garatzearekin batera, beren baitan hartuko dute kalitatezko enplegu zerbitzu baten prestazioetarako sarbidea, hain zuzen ere Nafarroako Foru Komunitatean aurrera eramaten diren enplegu autonomoko ekimenak garatzeko faseak bultzatzen eta mantentzen laguntzeko.

2. Autoenplegua bultzatzeko eta jarduera autonomoa finkatzeko politika aktibo horiek honako helburuak lortzera bideratuko dituzte jarduketako programa eta neurriak:

a) Norberaren konturako jarduera ekonomiko edo profesionalaren hasiera eragozten edo zailtzen duten oztopo guztiak kentzea, bai eta norberaren konturako jarduera ekonomikoari eusteko eta hura dibertsifikatzeko eragozpenak ere.

Autoenpleguaren arloan aukeren berdintasunerako eskubidea bermatu eta bultzatzeko, bereziki begiratuko zaie populazio talde batzuek langile autonomo gisa ezartzeko topatzen dituzten zailtasunei.

b) Enplegu autonomoko ekimenak sortu, finkatu eta modernizatzera bideratutako informazioarekin, aholkularitza teknikoarekin, pizgarriekin eta diru-laguntzekin lotutako neurri eta zerbitzuak ezartzearen bidetik sortzen diren lan autonomoko ekimenak erraztu eta laguntzea.

c) Ekonomia- eta enpresa-arloko ekintzailetasuna eta ahalmena bultzatu eta laguntzea. Helburu hori erakunde desberdinen bitartez sustatzeko aukera kendu gabe, Nafarroako Gobernuak bereziki bermatuko du haren garapen eraginkorra, hezkuntza sistemaren maila desberdinetan, modulu berriak bultzatuz lehen hezkuntzaren, derri-gorrezko bigarren hezkuntzaren, batxilergoaren eta lanbide heziketaren esparruan eta esparru berekiak sustatuz edo unibertsitateekin eta haien fundazioekin lotutako enpresak sortzeko lehendik daudenak bultzatuz.

d) Ingurune ekonomiko, sozial eta kultural bat sortzea, non autoenplegu eta enpresa-dibertsifikazioaren ekimenak garatzea posiblea izanen den, bereziki enplegu berrien, teknologia berrien eta interes publiko, ekonomiko eta sozialeko jardueren esparruan jokabide berritzaile bat errazten dutenak, eta, oro har, populazioaren ongizate ekonomiko eta sozialaren handitzea dakarten guztiak. Horretarako, bultzatuko da sare sozial profesional eta lurraldekoen sorrera, uneoro autoenplegu ekimenak lagundu eta bultzatuko dituztenak.

e) Lan autonomoaren berriak esparruan, etengabeko prestakuntza eta lanbidearen arloko berregokitzea sustatu eta bermatzea, enplegagarritasuna, produktibitatea eta jarduera garatzeko arrikuari aurrea hartzeko kudeaketa hobetuz.

f) Langile autonomoek jakintzaren, informazioaren eta komunikazioaren gizaratean parte-hartze aktiboa izan dezatela sustatzea, teknologia berrietarako sarbidea eta teknologia horien erabilera

erraztuz eta beharrezkoa izan daitekeen aholkularitza teknikoa emanez.

g) Berrikuntza eta garapen teknologiko eta antolamenduzkoen prozesuetarako sarbidea erraztea, haien bitartez areagotzen laguntzeko modu autonomoan egiten den lanaren edo ematen den zerbitzuaren produktibitatea.

h) Finantzetarako sarbidea erraztea, egitura finantzario berekiak sortzearen bidez, lan autonomoaren sorrera, finkapena eta dibertsifikazioa ahalbidetuz, mikrofinantziak tresna berezi gisa erabilia.

8. artikulua. Autoenplegurako politika aktiboen onuradunak.

1. Autoenplegurako politika aktiboen onuradunak izanen dira foru lege honen aplikazio esparruan sartzen diren pertsonak.

2. Programa, neurri eta zerbitzu desberdinek, aukera berdintasunerako eskubidearen berme gisa,

lan merkatuan sartzeko zailtasun handienak dituzten taldeen behar bereziei aurre eginen diete, kontuan hartuta, betiere, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoari zer jarduketa-esparru ezartzen dion Enpleguari buruzko abenduaren 16ko 56/2003 Legeak, zeina urriaren 31ko 1542/2011 Errege Dekretuak garatu baitzuen, non onetsi baitzen 2012-2014rako Espainiako Enplegu Estrategia. Estrategia horretan xedatutakoaren ondorioetarako eta Enpleguari buruzko abenduaren 16ko 56/2003 Legean araututakoarekin bat, lehentasunezko kolektibo gisa hartuko dira lan merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonak, gazteak bereziki, eta arreta berezia jarriko zaie prestakuntza-defizita dutenei, emakumei, epe luzeko langabeei, 45 urte baino gehiagokoei, ezgaitasuna duten pertsonari, edo gizarte-bazterkeriako egoeran daudenei, bai eta etorkinei ere.

3. Nolanahi ere, baldintza orokorrak edo berarizkoak ezarri ahalko dira jarduketa-neurri mota bakoitzaren arabera.

9. artikulua. Laguntzak eta diru-laguntzak.

1. Espezifikoki, autoenpleguaren eta enpresen sorreraren esparruan, non sartzen baitira enplegu autonomoaren edo ekonomia sozialaren bidez enpresa-ekimenak sustatzera zuzendutako ekintzak eta neurriak, edota zuzenduta dauden enpleguaren sorrerara, edozein motatako enpresa-jardueren sorrera eta sustapenera eta garapen ekonomikoa dinamizatzen eta bultzatzen, lan gabe dauden pertsonak, berriaz nahi badute beren konturako lan bat edo ekonomia sozialeko

enpresa baten esparruko lan bat lortu, honako laguntzak eskuratzen ahalko dituzte:

a) Autonomo gisa jartzeagatik laguntzak, edo kooperatiba edo lan-sozietate batean bazkide gisa sartzegatik laguntzak, bai eta enpresak sortze-koak ere.

b) Maileguren gaineko finantza-laguntzak.

c) Inbertsioetara zuzendutako laguntzak.

d) Laguntza teknikoaren arloko laguntzak, eta gerentzia-eginkizunetan laguntzekoak.

e) Prestakuntzarako laguntzak

f) Merkatuak aztertzea eta bideragarritasun-azterketak egitera zuzendutako laguntzak.

2. Enplegurako politika aktiboetako jarduketarako erreferente gisa konfiguratzeko diren neurriak:

a) Gorabidean izan eta enplegua sortzeko potentziala duten jarduera ekonomikoei lotutako ekintzailtza-neurriak; bereziki, honakoekin zerikusia dutenak: energia berriztagarriak, turismo iraunkorra, industria kulturalak, industria sozialak eta osasunarekin zerikusia dutenak, mendekotasunaren arloko industriak, teknologia berriak, ekoindustrialak edo etxebizitza-zaharbertzearen arlokoak.

b) Honako arloen sustapenean eginiko bultzapen-neurriak: pertsona langabeen ekimen ekintzailtzean, gorabidean diren jarduera produktibo estrategikoetan edo enplegua sortzeko potentziala dutenetan.

c) Inbertsio zuzenentarako laguntzak orokortzerako bideratutako neurriak, bai eta merkatu azterketak eta bideragarritasun-azterlanak egitera zuzendutakoak ere.

d) Autoenplegurako eta ekintzailtzarako orientabidea eta aholkularitza emateko neurri espezifikoak indartzea; hain zuzen ere, orientabidea eta aholkularitza enplegu zerbitzu publikoetan izena emandako pertsonentzat diren kasuetan, eta, bereziki, luzaroko langabeentzako eta lanbide-bir-kualifikazioa berreziketa behar duten pertsonentzat.

e) Populazio aktiboaren ekintzailtze-gaitasuna sustatzeko neurriak, bereziki pertsona gazteena, prestakuntzaren eta ekonomia sozialaren bidez.

f) Autonomoek beren negozioetan jarraitzea helburu duten neurri berezien sustapena, bai eta zailtasunak dituzten enpresei laguntzekoena ere.

g) Lan autonomoaren arloko eta enpleguaren sustapenarekin lotuta dauden enpresen, kooperatiben eta lan-sozietateen sorrerarako prestakuntza-, zabalpen- eta sustapen-neurriak.

h) Enpresen sorreraren arloan izapide elektronikoen erabilera faboratzeko neurriak.

i) Langile autonomoen artean eta ekonomia sozialaren arloan plangintza eta kudeaketa enpresariala indartzera bideratutako jarduketak egiteko neurriak.

j) Ekintzailtza-proiektuen finantza-bideragarritasuna eta jardueraren abiatzea errazteko neurriak.

k) Lan autonomoaren eta ekonomia sozialaren bidezko enpresa-ekimenak sustatzeko neurriak.

l) Gorabidean izan eta ekonomia sozialaren eta lan autonomoaren arloan enplegua sortzeko potentziala duten ekintzailtza-jarduketak bultzatzeko neurriak.

m) Enpresen sorrera laguntzeko neurriak, ekintzaileentzako aholkularitza-jardueren bidez, eta finantzabideak lortzera eta hobetzera bideratutako ekintzen bidez, bai eta enpresen sorreraren arloko prestakuntza-jarduerak ere.

n) Jarduera uzteagatik prestazio bat aitortua duten langile autonomoen lanbide-birkualifikazioa eta birlaneratzea errazteko ekintza espezifikoak garatzeko neurriak.

3. Diru-laguntzen zenbatekoak kasuan kasu finkatuko dira, mota bakoitzari buruzko arau erregulatuaren bidez. Nolanahi ere, zenbateko horiek arau berariazkoen bidez finkatzean, honako printzipio hauek bermatu beharko dira:

a) Nahikotasun ekonomikoa, pizgarriaren eraginkortasuna bermatuko duena, Nafarroako Foru Komunitatearen aurrekontuei buruzko kasuko foru legean finkatutako baliagarritasun-mugekin.

b) Iraupena, abian jartzen den uneetan jardueraren finkapena errazteko.

c) Zenbatekoaren graduazioa, eskatzaileak jarduera abian jartzeko zailtasunari erreparatuta, betiere kontuan hartuz foru lege honetako 6. artikuluan aipatzen diren printzipio gidariak.

4. Nafarroako Gobernuak enplegu autonomia sustatzeko politika aktiboen eraginkortasuna ebaluatuko du, behar diren maiztasun- eta kalitate-bermeekin, foru lege honetan aurreikusitako terminoetan. Ebaluazio bakoitza ikusita, Nafarroako Gobernuak, kasua bada, hartatik eratoritzen diren zuzenketak ezarriko ditu.

10. artikulua. Lan autonomorako finantziarioa eta ekintzaileari laguntzea:

a) Lan autonomia garatzeko eta ekintzaileari laguntzeko inbertsio sozialeko funtsak:

Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuak bultzatuko du izaera publikoko edo izaera misto publiko-privatuko inbertsio sozialeko funtsen sorrera. Funts horiek bideratuko dira lan autonomoari, ekintzaileei eta enpresa berritzaileei laguntzera, kasua bada parte hartuz partaidetza-kontu gisa edo kapital sozialean, eta enpresa-kudeaketari babesa emanez.

Pizgarri bereziak emanen dira autonomoen berezko egitura ekonomikoak sortzeko: kooperatibak, interes ekonomikoko elkarteak edo lankidetzak ekonomiko enpresarialerako bestelako moduak, tinko parte hartuz entitate horien funtsean, bai emaitza ekonomikoei dagokienez, bai kapitalari edo enpresen kudeaketari dagokienez, betiere funtsaren partaidetza kapitalaren ehuneko 49ra mugatuz.

Funtsean parte hartzeko lehentasuna izanen dute krisian egon eta kasuko enpresa kooperatiba, lan sozietate edo zuzenbidean onartutako beste edozein gisara bilakatzeko partaidetzak erosi nahi dituzten langileek. Funtsaren partaidetza proiektuaren bideragarritasunaren menpean egonen da.

Berariaz zuzkituko da lan autonomia garatzeko eta ekintzaileari laguntzeko inbertsio sozialeko funts bat. Funtsaren helburua da lan autonomoaren eta ekintzaileen lanaren finantzaketa hobetzea, eta erabiliko da maileguak emateko, onuradun eta urte bakoitzeko gehieneko muga batekin, proiektuaren balioaren ehuneko 80koa hain zuzen, interes-tasa txikiagoarekin. Funts honi atxiki ahalko zaizkio autonomoen sektorearteko elkarteak, enpresa txiki eta ertainen sektorearteko elkarteak eta ekintzaileen elkarteak, bai eta lan autonomorako eta ekintzaileei laguntzeko programa berariazkoak garatzen dituzten fundazio edo entitateak ere.

Halaber, kopuru zehatzak zuzkituko dira mikro-finantziario eta mikrokreditu sozialen sistema autonomiko bat sortzeko.

b) Lan autonomoaren eta ekintzaileari laguntzearen arloko bitartekari finantzarioa.

Bitartekari finantzarioaren figura sortzen da, lan autonomoan eta ekintzailearentzako laguntzan espezializatutakoa.

Autonomoei eta ekintzaileei finantziarioa lortzeko prozesuan laguntza eta aholkua emateko tresna baten gisara eratzen da.

c) Inbertitzaile pribatu soziala eta inbertsio soziala laguntzeko entitateak.

Inbertitzaile sozialen figura sortzen da: langile autonomoekin tinko lankidetzan diharduten pertso-

na fisikoak dira, edo ekintzaileen sozietateen kapital sozialean parte hartzen dutenak, jarduera ekonomikoaren etapa batean, beren ondarearen zati bat erabiliz onura ekonomiko edo sozial bat lortzeko.

Halaber, inbertsio sozialari laguntzeko entitateen figura sortzen da: beren esperientzia profesionalarekin autonomoen eta ekintzaileen jarduera ekonomikoen kudeaketan parte hartzen duten profesionalak osatzen dituzte.

Entitate hauek elkarte edo fundazioaren forma juridikoa izanen dute eta irabazi asmorik gabekoak izanen dira, nahiz eta beren kide aktiboaren jarduera ordainpekoa izan ahalko den.

d) Inbertsio hauetarako pizgarri fiskalak:

Erkidegoko Gobernuak berariazko sistema bat ezarriko du inbertsio hauetarako eta laguntza-entitateei pizgarri fiskalak emateko.

11. artikulua. Enplegu autonomoaren esparruan sartzea eta arlo horretako orientabideak. Nafarroako Enplegu Zerbitzua.

1. Nafarroako Gobernuak, toki entitateen parte-hartzearekin, politika eraginkor bat jarriko du abian, lan merkatuan lan autonomoko ekimenen bitartez sartzeko eta arlo horri buruzko orientabideak emateko. Politika horren oinarritzko helburua izanen da Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bitartez aholkularitza integraleko jarduera eraginkor bat ematea lurraldearen barruan autoenplegurako aukerez baliatzeko interesa duten pertsonen, arreta berezia eskainita enplegu bila ari diren pertsonen. Zerbitzu horrek autoenplegu planaren ziklo integralaren kudeaketa jasoko du, honako faseak barne direla: informazio egokia, orientabide nahikoak, prestakuntza egokia eta behar den gaikuntza.

2. Lanbidean sartzeko eta lanbideari buruzko orientabideak emateko zerbitzu hauen eraginkortasuna bermatze aldera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak bere gain hartuko ditu, besteak beste, lurraldeko lan merkatuari buruzko azterlan bat eta indusketa bat egiteko eginkizuna, eskatzen diren enplegu autonomoko formulak garatuz, ase daitezkeen premia ekonomiko eta profesionalak identifikatu eta kokatze aldera.

3. Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eraginkorren jotzen dituen lankidetzak moduak bultzatuko ditu toki entitateekin eta eragile sozioekonomiko guztiekin, xede hauek lurralde-esparru osoan bete daitezzen.

Nolanahi ere, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak behar diren hitzarmenak egiten ditu Nafarroa

osoan presentzia duten toki ekintzako taldeekin, halako moduz non lanbide orientazioko zerbitzua eraginkorra izanen baita foru erkidego osoan.

4. Nafarroako Enplegu Zerbitzuak arreta berezia eskainiko die Nafarroako Foru Komunitatean ekonomikoki menpekoak diren autonomoen araubidean beren jarduera betetzen duten pertsona guztien laneratze- eta orientabide-ekintzei. Lan honek bere baitan hartuko ditu ekonomikoki menpekoa den langile autonomoaren eta enpresa bezeroaren arteko bitartekaritza ekintzak, eta kontratu mota horretako eskaintzak eta eskariak kudeatzeko zerbitzu egoki bat eduki beharko du.

5. Ekonomikoki menpekoa den lan autonomoari begira ekintza hauek eraginkorrak izan daitezzen errazteko, bultzatuko da lankidetzak hitzarmenak egitea lan autonomoaren arloko lanbide-elkartekin.

12. artikulua. Lanbide prestakuntza eta kualifikazioa.

Enplegurako Lanbide Heziketaren Plan Nazionalaren esparruan, Nafarroako Gobernuak bermatzen du beren jarduera lan autonomoko araubidean garatzen duten pertsonen prestakuntzarako eta kualifikazio profesionalerako eskubidea, haien esparrurako berariaz diseinatutako lanbide heziketako programetara sarbidea emanez. Programa hauetan, kontuan hartuko dira Nafarroako Foru Komunitatean garatzen den lan autonomoaren errealitatea eta ezaugarri sektorialak.

Programa eta neurri horiek bermatuko dute ekimen horietarako gaikuntza profesionala izatea, bai eta jarduera modu optimoan kudeatzeko gaitasunaren garapena ere.

Urtero, Nafarroako Gobernuak lanbide heziketara bideratuko du aurrekontu berekien nahiz eskualdatutako portzentaje bat, lan autonomoak populazio aktiboan duen presentziaren arabera.

Prestakuntza jarduera horiek gauzatuko dira urtero profesionalen eta langile autonomoen sektore arteko elkartekin eginiko programa-kontratuaren bitartez.

13. artikulua. Berdintasuna eta familia, bizitza pertsonala eta lana bateragarri egitea.

1. Nafarroako Gobernuak eta toki entitateek, beren eskumenen esparruan, emakumeen eta gizonen guztizko parekatzea bermatuko dute enplegu autonomoko ekimenak sortu, finkatu eta modernizatzeko faseetan.

2. Eskubide horren eraginkortasuna bermatu eta bultzatzeko, arreta berezia eskainiko zaio lan-

bide bitzta familiako bizitzarekin eta bitzta personalarekin modu eraginkorrean bateragarri egiteko neurrien garapenari. Horretarako, Nafarroako Gobernuak honakoak ezarri beharko ditu:

a) Pizgarriak, partzialki ordaintzeko titularra bere jardueran aldi baterako ordeztzeko langabetu bat kontratatuzetik heldu diren gastuak, familia eta lanbidea bateragarri egitetik heldu diren eskubideak betetzen ari diren kasuetan; esate baterako, honako egoerekin lotutako eskubideak: haurdunaldian zeharreko arrisku-egoerak, edoskitze naturala, amatasuna, aitasuna, adopzioa, harrera edo seme-alabak nahiz senideak zaintzeko lanaldi murrizketa nahiz eszedentzia.

b) Eskubide horietaz baliatzen hasi aurretik pertsona horiek garatzen ari ziren jarduera autonomoan berriz sartzera bideratutako pizgarriak.

c) Ikasketa, ikerketa, prestakuntza-jarduera eta antolamendu-esperientzia berritzaileak sustatzera orientatutako programak, lanbidea eta lana bateragarri egitearen esparrukoak.

14. artikulua. Langile autonomoak lanbidean berriz sartzera.

1. Lanbidean berriz sartzeko politikek, lana aurkitzeko aukerak hobetzera bideratu eta Nafarroako Gobernuak garatu dituen horiek, kontuan hartuko dituzte inguruabar ekonomikoengatik beren jarduera bertan behera utzi duten pertsonak.

2. Xede horretarako, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak, interesdunen parte-hartzearekin, honakoak eskuratuko ditu:

a) Lanean berriz hasteko ibilbide pertsonalizatu bat. Ibilbide horrek, besteak beste, prestakuntza-neurri batzuk jasoko ditu, pertsona hauei beren aurreko jarduerarekin lotutako jardueretan espezializazio bat emateko, edo, bestela, kasu batean zein bestean, enplegu-aukera handiagoak eskaintzen dituzten sektore berrietara bideratua.

b) Neurri ekonomikoak, onuradunei lanbidean berriz sartzeko ibilbidearen garapenean laguntza ematera bideratuak.

15. artikulua. Emandako laguntzen araubidea.

1. Foru lege honetan aurreikusitako sustapen neurrien onuradunek bete beharko dituzte haiek arautzen dituen araudi berariazkoak exijitzen dituen baldintzak eta betekizunak. Betebehar horietakoren bat ez betetzeak edo laguntzak erabiltzeak haiek emateko aurreikusi ziren xedeez beste batzuetarako, berarekin ekarriko du emandako laguntza horiek guztiz nahiz zati batean itzuli behar izatea.

2. Diru-laguntzak itzultzeko prozedura gauzatu-ko da aplikatzeko den legedian jasotako prozedura administratiboetako xedapen orokorren arabera.

3. Diru-laguntzak itzultzeko espedientea izapidetzearen ondorioz antzematen bada aplikatzeko den legedian jasotako arau-hausteren bat egin dela, horretarako ezarritako prozedura beteko da.

III. KAPITULUA Kontsumoko Arbitraje Batzordeetan parte hartzea

16. artikulua. Kontsumoko Arbitraje Batzordeetan parte hartzea.

Nafarroako Gobernuak bultzatuko du beren estatutuetan arbitraje-eginkizunak aurreikusten dituzten langile autonomoen lanbide-elkarteek Kontsumoko Arbitraje Sistemari –eta bereziki Kontsumoko Arbitraje Batzordeetan– sartu eta parte hartzea.

IV. KAPITULUA Babes sozialeko bestelako neurriak

17. artikulua. Laguntzak.

Nafarroako Gobernuak babes sozialaren arloko laguntzak emanen dizkie Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean beren konturako jarduera bat garatzen duten pertsonari, hurrengo idatz-zatietan ezarritakoaren arabera.

1. Jardueraren hasierarekin lotutako gizarte laguntzak.

Nafarroako Gobernuak, aldizka, laguntza-plan bat ezarriko du foru erkidegoaren lurraldean norberaren konturako jardueretan hasteko. Plan horretan, berariazko laguntzak jaso ahalko dira langabeziagatik kotizaziopeko prestazioaren ordainketa bakarraren modalitatea aukeratzen dutenentzat, bai eta Gizarte Segurantzako kotizazioa ordaintzeko laguntzak ere, diru-sarrerari nahikoak ez izatea edo eskatzailearen adina edo eskatzaile berria izatea bezalako faktoreei, besteak beste, erreparatuta.

2. Gizarte Segurantzaren kuotetarako hobariak.

Nafarroako Foru Komunitateak hitzarmenak izenpetu ahalko ditu Gizarte Segurantzarekin kotizazioetarako hobari gisako laguntzak bideratze aldera, erkidegoarentzat interes berezikoak diren artisautza- edo arte-jarduerak eta kultur jarduerak garatzen dituztenentzat.

3. Jarduera eteteko kasuetarako laguntzak.

a) Nafarroako Gobernuak gizarte laguntzak emanen dizkie behar bezala egiaztatutako arrazoi

objektiboak tarteko beren konturako jarduera eteten dutenei. Laguntza horiek berariaz bideratuta egonen dira jarduera etetera jarduera ekonomiko eta profesionala berritze aldera.

b) Kasu horretan, jardueraren titularrak, laguntza-eskariarekin batera, jarduera edo establezimendua berritzeko edo erreformatzeko kasuko proiektua aurkeztu beharko du, bai eta langile autonomoaren aurrekontu eta inbertsio pertsonalaren proiektua ere.

c) Laguntza horiek emateko terminoak kasuko erregelamenduaren bitartez garatuko dira, Nafarroako Foru Komunitateko Aurrekontuei buruzko Foru Legean jasotako aurrekontu-aurreikuspenen barruan.

V. KAPITULUA

Lan autonomoaren arloko politiken kalitatea eta ebaluazioa

18. artikulua. Zerbitzuen kalitate-sistemak.

Nafarroako Foru Komunitateak lan autonomoaren esparruan garatzen diren zerbitzuen prestazioaren hobekuntza jarraitua sustatuko du, besteak beste aurreikusiz kalitatea ebaluatzen diren sistemak, informazio sistemak eta praktika zuzenen gidak.

19. artikulua. Administrazioarekiko harremana lan autonomoaren esparruan.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak sustatuko du Administrazioaren eta beren kontura jarduera ekonomiko eta profesionala betetzen dutenen arteko harreman arin, zuzen eta eraginkorra, gobernu zuzenaren printzipioetan oinarritua, arreta berezia eskainita bitarteko elektronikoko esku-argarriari.

20. artikulua. Lan Autonomoaren Plan Estrategikoa.

1. Lan Autonomoaren Plan Estrategikoaren xedea izanen da lan autonomoaren esparruan garatzen diren politika publikoen diseinu orokorra, esparru horretan ematen diren zerbitzuetan eraginkortasun eta efizientzia handienak lortzeko xedez. Plan horretan, aurreko xedea lortzeko behar diren neurri, jarduketak eta baliabideak jasoko dira.

2. Plan Estrategikoak bilduko ditu, besteak beste, artatu beharreko premien diagnosi bat, lortu beharreko helburuak eta helburu horiek lortzeko ildo estrategikoak, bai eta honako hauek ere: onetsi eta bete beharreko ekintzen kronograma bat; bitarteko materialen eta giza bitartekoaren identifikazioa, azken horien prestakuntza eta kualifikazioa premiekin batera; kasua bada, beharrezkotzat jotzen diren departamentu-arteko eta admi-

nistratio-arteko koordinazio-neurriak; eta plana bera ebaluatzen diren tresnak.

3. Plan Estrategikoak lanbide-arriskuen prebentzioaren arloko plangintza-jarduketak jasoko ditu; kasu bada, laneko segurtasunaren eta osasunaren Nafarroako strategiaren barruan.

4. Plan Estrategikoak guztiz errespetatuko du emakumeen eta gizonen arteko tratua eta aukeren berdintasuna, eta berarekin batera planak emakumeengan eta gizonengan izan ditzakeen eraginak aztertuko dituen genero-eragineko azterlan bat ere aurkeztu beharko da.

5. Plan Estrategikoarekin batera, haren aplikazioa bermatuko duen txosten ekonomikoa aurkeztu beharko da.

21. artikulua. Lan autonomoaren Plan Estrategikoa egitea.

1. Lan autonomoaren arloko departamentu eskudunari dagokio Lan Autonomoaren Plan Estrategikoa egitea. Plan estrategikoa hori Nafarroako Gobernuari aurkeztuko zaio, onetsi dezan.

2. Plan Estrategikoa gutxienez ere lau urtez behin egingen da, eta haren proiektua baino lehen nahitaez kontsulta egin beharko zaio Nafarroako Lan Autonomoaren Kontseiluari, nahiz eta kontsulta hori ez den loteslea izan. Aldizkakotasuna koordinatuko da planarekin, enpleguaren aldeko akordioekin edo Nafarroako Gobernuak onesten dituen antzeko proiektuekin.

22. artikulua. Lan autonomoari informazioa emateko zerbitzuak.

1. Nafarroako Gobernuak, bere eskumenen esparruan, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean garatzen diren norberaren konturako ekimen ekonomiko eta profesionalen garapenerako, finkapenerako eta, kasua bada, berriztatzerako behar diren informazio eta aholku teknikoak emanen ditu. Aurrera eramaten diren informazioko eta aholku teknikoko jardueretan, arreta berezia eskainiko zaie lan autonomoaren esparruan eragin handiena duten taldeei.

2. Lan autonomoari aholkua eta informazioa emateko zerbitzuak Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean lan autonomoa sortu, sustatu eta modernizatzeko aurrekusi diren pizgarrien osagarri bat dira, eta lan autonomoaren arloko departamentu eskudunak emanen ditu.

23. artikulua. Lan autonomoari buruzko zabalpen eta informazio neurriak.

Nafarroako Foru Komunitatean lan autonomoaren ezagutza bultzatze aldera, lan autonomoa

aztertu eta zabaltzeko laguntza neurriak ezarriko dira, bai eta auto-enpleguaren kultura sustatzeko neurriak ere.

Beste bide batzuen artean, lan autonomoari aholkua eta informazioa emateko zerbitzuak Nafarroako Gobernuaren webgunearen bitartez bideratuko dira, autonomoentzako berriazko atal bat baitu.

24. artikulua. Politika publikoen ebaluazioa.

1. Lan autonomoaren arloan eskudun den departamentuak aldizka txosten bat eginen du, erregelamendu bidez ezartzen diren terminoetan, Nafarroan lan autonomoaren arloan aurrera eramaten diren jarduketei buruz. Ebaluazioaren oinarria politika publikoen emaitzak izanen dira, bai eta politika horiek herritarrengan duten eragina ere.

2. Ebaluazio horretan arreta berriazko eskainiko zaio enplegu autonomoa sustatzeko hartutako neurri-multzoren eta haietan baliabide publikoen erabileran izandako eraginkortasunaren eraginari.

25. artikulua. Sinplifikazio administratiboa enpresak sortzeko eta izapide administratiboak gutxitzeko.

Enpresentzako leihatila bakarrak bultzatuko dira, eta haien bidez enpresak 24 orduren buruan sortu ahalko dira, behin-behineko adierazpen batekin. Gainerako dokumentazioa aurkezteko sei hilabete emanen dira.

Enpresak sortzeko izapide telematikoen sistema bultzatuko da, Nafarroako Foru Komunitatean enpresa-proiektuak abian jartzeko aholkularitzalanak jada egiten ari diren entitate publiko eta pribatuekin koordinatuta.

Lehen xedapen gehigarria. Ekonomikoki menpekoak diren langile autonomoen kontratuaren erregistroa.

1. Nafarroako Gobernuak bere gain hartuko du, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak eginiko kudeatze-gomendio gisa, ekonomikoki menpekoa den langile autonomoaren eta bezero den enpresaren artean jarduera ekonomikoko edo profesional bat egiteko kontratuk erregistratzeko jarduera, otsailaren 23ko 197/2009 Errege Dekretuan ezarritako terminoetan, zeinak Lan Autonomoaren Estatutua garatzen baitu ekonomikoki menpekoa den langile autonomoaren kontratuaren arloan. Jarduera horrek bere baitan bilduko du honakoak erregistratzea: eginiko kontratuak, egin diren kontratu-aldaketak eta kontratuen amaierak.

2. Horretarako, berriazko erregistro bat sortuko da Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bulegoetan,

eta hari esleituko zaizkio aipatutako erregistroak funtzionatzeko jarduera material, tekniko edo zerbitzukoak.

3. Kontratu horiek estatu-izaerakoak eta bakarrak izatea bermatze aldera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren bitartez, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari informazioa emanen dio kontratu horien erregistroari buruz, bai eta haien amaierari buruzko informazioa ere, menpekoak diren langile autonomoen altak eta bajak eta izandako aldaketak izapidetze aldera.

4. Halaber, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak aldizka Nafarroako Lan Autonomoaren Kontseiluari informazioa emanen dio kontratu horien erregistroari buruzko datuen gainean, bai eta izaniko alta, baja eta datu-aldaketen gainean ere.

Bigarren xedapen gehigarria. Jarduera uzteagatiko laguntzak.

Behin jarduera uzteagatiko prestazioaren estatu-araua onetsi ondoren, Nafarroako Gobernuak aztertuko du zein aukera duen foru erkidegoko lurraldean garatzen diren jarduera ekonomikoko edo profesionalak gutzitze edo hein batean uzteagatiko laguntza osagarriak emateko.

Hirugarren xedapen gehigarria. Azterlan sektorialak.

Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan, azterlan sektorial batzuk eginen dira, non honako alderdiak jasoko baitira:

1. Sektoreko autonomoak identifikatzea eta haien arazo berriazkoak aztertzea, bai eta berriazkotetasun horiek lan baldintzetan dauzkaten eraginak ere (ordainsariak, lana eta familia bateragarri egitea, gizarte babesa eta abar).

2. Egoerari buruzko diagnosi bat, honakoei buruzko aipamen bereziekin: merkatuko lehiakortasun-ahalmena, prestakuntzako gabeziak, finantzaketa, I+G+B eta enpresen arteko lankidetzahalmena.

3. Jarduketa planak, hobetzeko proposamenak eta araugintzako aukerak, Nafarroako Foru Komunitatearen eskumenen esparruan.

Laugarren xedapen gehigarria. Ekonomikoki menpekoak diren langile autonomoen buruzko azterlanak.

Hiru hileko epean, foru lege honek indarra hartzen duenetik, Nafarroako Gobernuak azterlan bat eginen du Nafarroako Foru Komunitatean lan egiten duten eta ekonomikoki menpekoak diren langile autonomoen buruz. Azterlanak aukera emanen

du autonomo horien lan baldintzak eta jarduera-sektoreak ezagutzeko.

Bosgarren xedapen gehigarria. Ekintzaitzari buruzko lan bilera.

Nafarroako Parlamentuak, urtean behin, ekintzaitzari buruzko lan bilera bat egingen du, non pertsona eta entitate parte-hartzaileek informazioa emanen duten eta erkidego honetan ehundura enpresariala areagotzeko eta horrenbestez enplegua sortzeko proposamenak aurkeztuko dituzten.

Xedapen iragankor bakarra. Ekintzaitzari buruzko lehenengo plana egitea.

Sei hilabeteko epean, ekintzaitzari buruzko lehenengo plana egin eta onetsiko da.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Foru lege honetan xedaturikoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak indarrik gabe gelditzen dira.

Azken xedapenetan lehena. Parlamentua informatzea.

1. Nafarroako Gobernuak urtero foru parlamentuari informatuko dio arau honetan jasotako aurreikuspenen betearazpenari buruz.

2. Txosten horrek honakoak jasoko ditu: kon-sulta-organoen irizpena eta aplikatutako politiken

nahiz erabilitako baliabide publikoen eraginkortasuna ebaluatzeko agiria.

Azken xedapenetan bigarrena. Bitartekari finantzarioaren eta inbertitzaile sozialaren figurak garatzea.

Foru lege hau onetsi eta sei hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak, kasuko erregelamendua-ren bidez garatuko du lan autonomoan eta ekintzaitzaitzako laguntzan espezializatutako bitartekari finantzarioaren figura, zeina 10. artikuluko b) letran jasoa baitago.

Foru lege hau onetsi eta sei hilabeteko epean ere, halaber, Nafarroako Gobernuak, erregelamendu bidez, edukiz beteko ditu inbertitzaile pribatu sozialaren eta inbertsio soziala laguntzeko entitatearen, zeinak 10. artikuluko c) letran jasota baitaude.

Azken xedapenetan hirugarrena. Arauak emateko ahalmena.

Ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege hau garatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Azken xedapenetako laugarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Kutxaren Gizarte Ekintzaren ondasun artistiko, kultural eta higiezin guztien inbentario bat egin dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2013ko otsailaren 28an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Kutxaren Gizarte Ekintzaren ondasun artistiko, kultural eta higiezin guztien inbentario bat egin dezan.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Nafarroako Kutxaren Gizarte Ekintzaren ondasun artistiko eta kultural guztien, higigarrien zein higiezin, inbentario katalogatua

eska dezan, gaur egungo Batzorde Kudeatzailearen bidez.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Legebiltzarrari inbentarioaren berri eman diezaion, gehienez ere hiru hilabeteko epean, inbentarioa ezagutu eta, kasua bada, eguneratu ondoren.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Kutxa Fundazioarekin akordio batera irits dadin, inbentarioa egin ondoren, arte-lan katalogatuak erakuste aldera Nafarroako Museoen Sarea osatzen duten zentroetan”

Iruñean, 2013ko martxoaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar adinako diru-kopurua eslei dezan Hezkuntza Departamentuaren aurrekontuan, Tuterako Fernando Remacha Kontserbatorioan musikako ikaskuntza profesionalen eskaintza mantendu eta zabaltzeko.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2013ko martxoaren 1ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar adinako diru-kopurua eslei dezan Hezkuntza Departamentuaren aurrekontuan, Tuterako Fernando Remacha Kontserbatorioan musikako ikaskuntza profesionalen eskaintza mantendu eta zabaltzeko.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar adinako diru-kopurua eslei dezan Hezkuntza Departamentuaren aurrekontuan, Tuterako Fernando Remacha Kontserbatorioan musikako ikaskuntza profesionalen eskaintza kalitaterik hoberenarekin mantentzeko ekitaldi honetan eta hurrengoetan”

Iruñean, 2013ko martxoaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak elkartasuna adierazten dio Cascanteko Santa Vicenta María ikastetxe publikoko hezkuntza-komunitateari, eta uste du ikastetxe horren segurtasunak ezin duela krisiaren menpe egon.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2013ko martxoaren 1ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak elkartasuna adierazten dio Cascanteko Santa Vicenta María ikastetxe publikoko hezkuntza-komunitateari, eta uste du ikastetxe horren segurtasunak ezin duela krisiaren menpe egon.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak elkartasuna adierazten dio Cascanteko “Santa Vicenta María”

ikastetxe publikoko hezkuntza-komunitateari, eta uste du ikastetxe horren segurtasunak ezin duela krisiari baldintzatuta egon.

2. Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentuari gogorarazten dio ezin duela krisiaren aitzakia baliatu, kasu honetan duen erantzukizunari aurre ez egiteko, edo erantzukizun horren parte bat Udalaren gain uzten saiatzeko, are gehiago Nafarroako Gobernua udalen aurrekontuak murrizten ari denean eta beren inbertsioak eta zor bizia murrizteko gonbita egiten ari zaienean”

Iruñean, 2013ko martxoaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak uste du behin kargu politikoekiko indarkeria- eta mehatxu-egoera desagerturik ez dagoela justifikatuta horien babes-neurri pertsonalak funts publikoen kontura mantentzea.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak uste du behin kargu politikoekiko indarkeria- eta mehatxu-egoera desagerturik ez dagoela justifikatuta horien babes-neurri pertsonalak funts publikoen kontura mantentzea."

Legebiltzarrak, 2013ko otsailaren 28an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2012ko azaroaren 8ko 91. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko martxoaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentua premiatzen da deialdi bat onets dezan, ikuskari lanpostuak aldi baterako betetzeko izangaien zerrenda bat osatze aldera.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Bildu-Nafarroa, Nafarroa Bai eta Ezkierda-Ezkerra parlamentu-taldeek ondoko mozioa aurkeztu zuten: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentua premiatzen da deialdi bat onets dezan, ikuskari lanpostuak aldi baterako betetzeko izangaien zerrenda bat osatze aldera."

Legebiltzarrak, 2013ko martxoaren 1ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2012ko abenduaren 21eko 112. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko martxoaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Kontseilu Ekonomiko eta Soziala ken dezan.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Ana Beltrán Villalba andreak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Kontseilu Ekonomiko eta Soziala ken dezan."

mozioa baztertzea. Mozio hori 2013ko otsailaren 4ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko martxoaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

